


Errebolberren zehaztasuna duten grapagailuak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Eibar, 1920. Suzko armak egiten zituena Orbea enpresako bi langilek, Juan Solozabal eta Juan Olavek, El Casco enpresa sortu zuten. Orbean ikasitakoa baliatuz, kalitate handiko errebolberak ekoiztea zen hain asmoa, eta horixe egin zuten bederatziretaz. Baina 1929ko krisiak eragina izan zuen errebolberren merkatuan ere, eta bi armaginek ekoizpena egokitzea erabaki zuten. Lehengai, makina eta langile espezializatu berberak erabiliz, bulegoko materiala egingo zuten handik aurrera.

Onddo itxurako grapagailua diseinatu zuten eta "cosepapeles" edo "paper-joskailu" esan zioten. Eta hasieratik garbi adierazi zuten armagintzarekin zuten lotura: "Bala bat errebolber baten kanoian ibiltzen den zehaztasun berarekin ibili behar du grapa batek grapagailuan". Lehenago ere baziren grapagailuak merkatuan, esaterako, C. H. Gould-ek 1879an patentatutako kilotik gorako tramankulu astuna. Beraz, ezin da esan Olave eta Solozabalek grapagailua asmatu zutenik; bai, ordea, eskuzko grapagailu arinak ekoizten eta hedatzen lehenak izan zirela.

Paper-zulagailuak, txorroskiloak edo gutun-pisuak ere ekoizti zituzten, baina grapagailua izango zen enpresaren produktu izarra, bereziki 1932an M-5 modelo ezaguna egin zutenetik. Gaur egun, Elgetako fabrikari El Casco oraindik M-5a ekoizten du eta mundu osoan saltzen da. Gainera, 90 urteko modeloa



Eibarko bi armaginek M-5 grapagailua sortu zuten 1932an. 90 urte geroago, modeloa oraindik ekoiztu eta mundu guztian saltzen da.

New Yorkeko MoMa museoa dago ikusgai, artelana bailitza.

El Cascoen historiak adierazten du eguneroko objektuak arte bihurtu daitezkeela. Baina hori baino lehen, adierazten du eguneroko objektu askok industria militarrean dutela jatorria, behar militarrei lehenetsua ematen zaiela gizarte zibilaren beharren aurre-

tik, gero horiei erantzuteko balio duten arren. Eibarren asmatutako grapagailuez gain, jatorri militarreko beste asmatutako izan dira gure bizimodua aldatu dutenak: zinta itsasgarria, janari ontziratua, mikrouhin labea, kontaktuzko kola, konpresa menstrualak, radar meteorologikoak, internet, kautxu sintetikoak pneumatikoak... ●



ARABAR ERRIOXAKO KOMUNITATEA

Eltziegoko emakume ardogileak

1899an Eltziegoko (Araba) ardo ekoizpenaren % 40aren jabe emakumeak ziren. Datuak adierazten du emakumeek Arabako Errioxako herri horretako ardogintzan pisu handia zutela garai hartan. Eta datu hori ez da salbuespena. Juan Celaya Letamendi Fundazioak eta Talka galeriak bultzatuta, eguno-

tan erakusketa bat dago ikusgai, azken bost mendeetan emakumeek Eltziegoko ardogintzan izan duten eragina biltzen duena. Erakusketa 20 panelez osatua dago, "Emakumeak ardogintzan" du izenburua, eta urtarrilaren 30a arte egongo da zabalik Eltziegoko Maisuen Etxean. ●